

Lankidetzaren Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

Deialdia egin duena	Donostiako Udala
Convoca	Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua	2018ko martxoaren 15ean / 15 de marzo de 2018
Fecha, lugar y hora	Udalbatza Aretoan / Salón de Plenos del Ayuntamiento 16:00etan / A las 16:00 horas

GAI ZERREDA: ORDEN DEL DÍA:

Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.	1	Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.
Kontseiluko kide berrien aurkezpena: - Sodepaz - Intermón Oxfam	2	Presentación de nuevas entidades: - Sodepaz - Intermón Oxfam
Udal Lankidetz sailaren 2017 urteko memoriaren aurkezpena.	3	Presentación de la memoria del departamento del año 2017.
Udalaren 2018 urteko plan operatiboaren laburpen motza	4	Breve resumen del Plan Operativo anual del departamento para 2018
2018 diru laguntza deialdiaren egoeren berri ematea.	5	Informar sobre la convocatoria de subvencione 2018
GIHei buruzko Koordinakundearen lan talde berriaren aurkezpena	6	Presentación del nuevo grupo de la Coordinadora sobre ODS
Galderak eta zalantzak.	7	Ruegos y preguntas.
Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.	8	Información sobre próximas actividades.

BILERAN PARTE HARTU DUTE: HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	PSE-EE (Duñike Agirrezabalaga) Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria PSE-EE (Duñike Arrizabalaga) Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	<ul style="list-style-type: none"> • EH-BILDU • IRABAZI • PP • PSE-EE



**ELKARTEAK,
HERRITARRAK,
GARRANTZI BEREZIA
DUTEN GIZARTE
TALDEAK**

ASOCIACIONES,
CIUDADANO/AS,
COLECTIVOS DE
ESPECIAL RELEVANCIA
SOCIAL

- ADSIS
- ALBOAN
- BAKEA ETA ELKARTASUNA EUSKADI
- BRIGADAS INTERNACIONALES DE PAZ-PBI
- CALCUTA ONDOAN
- CRUZ ROJA
- DERANDEIN ELKARTEA
- EMAUS
- INTERED
- INTERMON OXFAM
- LUMALTIK
- MEDICUS MUNDI GIPUZKOA
- MUGARIK GABE
- MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK
- MUGEN GAINETIK
- MUNDUBAT
- PROCLADE YANAPAI
- PROSALUS
- PROYDE-PROEGA
- SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA
- SETEM
- SODEPAZ
- TAU FUNDAZIOA
- UNICEF
- UNRWA EUSKADI
- EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA

**UDAL
TEKNIKARIAK**
PERSONAL TÉCNICO
MUNICIPAL

Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetza teknikaria

Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación

Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzburua

Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social

Lankidetza Ataleko burua

Jefa del negociado de Cooperación

**PARTAIDETZAREN
DATUAK**
DATOS DE
PARTICIPACIÓN

Lankidetzako Kontseilu sektorialeko 30 kide, jarraian adierazten direnez gain:
udaleko 3 ordezkari tekniko (2 emakumezko eta gizonezko 1).

- **Emakumezkoak / Mujeres = 20**
- **Gizonezkoak / Hombres = 10**

30 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del
personal técnico municipal: 3 personas (2 mujeres y 1 hombre).

IDAZKARITZA:
SECRETARÍA DEL
CONSEJO:

Lankidetza - Cooperación:

Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65 943481471 lankidetza@donostia.eus

SAIOAREN BILAKAERA: DESARROLLO DE LA SESIÓN:

<p>Hasieran azaldu dutenez, gero etorriko den erakundearekin partekatu behar izan dugu lekua, eta horregatik banatu da espazioa beste modu batean eta, gainera, ez dago aldibereko itzulpen-zerbitzurik.</p> <p>Jarraitu baino lehen, aditzera eman dute hainbatek deitu duela Bulegora larrialdietarako laguntzak eskatzeko epea noiz den galdetuz. Idazkariak azaldu duenez, urteko edozein momentotan aurkez daitezkeela proiektuak, aurrekontua agortu arte. Gaineratu du ez dagoela oinarririk, ez epe formalik, bere garaian ezarritako oinarriko irizpideak baino ez.</p>	<p>Se comienza explicando que se la distribución alternativa del espacio y la falta de traducción simultánea se deben a que hemos tenido que compartir el espacio con la formación que habrá posteriormente.</p> <p>Antes de continuar, se comunica que ha habido varias llamadas al departamento preguntando por el plazo de presentación de solicitudes para ayuda de emergencia. La secretaria aclara que en cualquier momento del año, hasta agotar el presupuesto, se pueden presentar proyectos. Aclara también que no hay bases, ni plazo formal, sólo los criterios básicos que se establecieron.</p>
<p>1.- Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.</p> <p>Aurreko akta onartu da aldaketarik gabe.</p>	<p>1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.</p> <p>Se aprueba el acta anterior sin ninguna modificación.</p>
<p>2.- Kontseiluko kide berrien aurkezpena:</p> <p>Sodepaz eta Intermón Oxfam Kontseiluko kide berriek beren buruaren aurkezpena egin dute. Bileran zeuden beste guztiek ere beren buruaren aurkezpena egin dute, txandaka.</p>	<p>2.- Presentación de nuevas entidades:</p> <p>Sodepaz e Intermón Oxfam se presentan como nuevos integrantes del Consejo, y se realiza una ronda de presentación de las personas presentes.</p>
<p>3.- Udal Lankidetzta sailaren 2017 urteko memoriaren aurkezpena.</p> <p>Atalburuak arloko memoriaren aurkezpena egiten du proiektatutako power pointean oinarriturik (ikus erantsitako dokumentua). Dokumentu hau webgunean zintzilikatuko dela jakinarazten da.</p> <p>Azaldu dutenez, udal lizitazioetan irizpide etiko, sozialak nahiz ingurumenari, berdintasunari eta euskarari lotutakoak kontuan hartzea behartzen duen jarraibidea onartu zenetik, urtero alderdi horietako bat edo gehiago aintzat hartu izan dira hainbat baldintza-orrutan. Lankidetzta Bulegoak bakarrik proposatzen duenez bidezko merkataritzako produktuak erosi behar diren lizitazioetan irizpide etikoak kontuan hartzea, eta beste sail batzuk arduratzen direnez irizpide sozialez,</p>	<p>3.- Presentación de la memoria del departamento del año 2017.</p> <p>La jefa de la sección ha presentado la memoria del área, con la ayuda de un power point que ha proyectado (véase el documento anexo). Este documento se colgará en la web.</p> <p>Se aclara que, desde la aprobación de la instrucción que obliga a incluir criterios éticos, sociales, éticos, medioambientales, de igualdad y de euskera en las licitaciones municipales, anualmente han sido varios los pliegos que tienen en cuenta alguno o varios de estos aspectos. Como desde el departamento de Cooperación tan solo se proponen incluir criterios éticos en las licitaciones que requieran compra de productos de comercio justo, y son otro los</p>



horiek bakarrik aintzat hartu ditugu Bulegoaren memorietan.

departamentos que se encargan de los criterios sociales, tan solo hemos incluido éstos las memorias del departamento.

4.- Udalaren 2018 urteko plan operatiboaren laburpen motza

Atalburuak 2017ko memoria azaltzen duen duen heinean, 2018rako aurreikusitako ekintzak ere aipatzen ditu. 2018an bereziki landu beharreko gaien artean egongo dira:

- Kontratuen Lege berria eta lege horrek Udalaren erosketak eta kontratazioarako klausula etikoetan duen eragina.
- Donostia paradisu fiskalik gabeko hiria izan dadin lan egitea, Intermón Oxfamen proposamenean oinarrituta.

Mugarik Gabeko Ekonomialariak erakundearen ordezkariak proposatu du, horretaz gain, lan egitea giza eskubideei buruzko irizpideak betetzen ez dituzten nahiz garapen-bidean dauden herrialdeak ustiatzen dituzten enpresak ez kontratatzeko.

4.- Breve resumen del Plan Operativo anual del departamento para 2018

La jefa de la Sección ha expuesto la memoria de 2017 y, a su vez, ha citado las acciones previstas para 2018. Estos son algunos de los temas a los que deberá prestarse una especial atención en 2018.

- La nueva ley de contratación y su repercusión en las cláusulas éticas de compra y contratación municipal.
- Trabajar por que Donostia sea una ciudad libre de paraísos fiscales, a partir de la propuesta de Intermón Oxfam.

El representante de Economistas Sin Fronteras propone que además también se podría trabajar por la no contratación de empresas que incumplan criterios de derechos humanos o exploten a países en vías de desarrollo.

5.- 2018 diru laguntza deialdiaren egoeren berri ematea.

Diru-laguntzen deialdirako proiektuak aurkezteko epea irekita dago eta martxoaren 27a arte hala egongo da. Aldaketa gutxi izan da oinarrietan, aurreko urtekoekin alderatuta. Formularioa, berriz, aldatu da. Izan ere, aurten on line baino ezin da bete, web plataforma baten bidez. Gomendatu dute ez uztea prozesu guztia bukaerarako eta gogorarazi dute, formularioa egin eta gero, erregistratu behar dela, on line edo aurrez aurre, Udalinfon.

Kontseiluko kide batzuek nabarmendu dute otsailaren 27tik martxoaren 27ra hogeita hamar egun baino gutxiago daudela eta, hortaz, eskatu dute hurrengo deialdietan hilabeteko epea errespetatzea. Aurreko edizioetan saiatu dira epeei buruzko irizpideak aldatzen eta ez dute lortu, baina hitz eman dute berriro planteatuko dutela Kontu-hartzailetzan, haiek baitira alderdi horren erantzuleak.

5.- Informar sobre la convocatoria de subvencione 2018

Está abierto el plazo para presentar proyectos a la convocatoria de subvenciones, hasta el 27 de marzo. Ha habido pocos cambios en las bases respecto a años anteriores. El cambio ha sido el formulario, que este año es exclusivamente on-line, a través de una plataforma web. Se recomienda no dejar todo el proceso para el final, y se recuerda que tras la elaboración del formulario hay que darle registro, bien on-line bien de manera presencial en Udalinfo.

Por parte de integrantes del Consejo se subraya que del 27 de febrero al 27 de marzo no hay 30 días, y se pide que en futuras convocatorias se respete el plazo de un mes. Aunque ya se ha intentado cambiar el criterio de los plazos en ediciones anteriores, se compromete a volver a trasladarlo a Intervención, que es la sección responsable de dicho aspecto.

<p>Bestalde, galdetu dute ea ebaluazioren bat egin behar den elkarte erabiltzaileekin sistema berriaz. Izan ere, formatuari buruzko kexak daude eta, gainera, erakunde bakoitzak bere plataforma du eskabideak aurkezteko. Badaude kexa batzuk, baita ere, udal plataforman hutsak daudelako oraindik eta prestakuntza-saioetarako deiak egiten ari direlako epea amaitu baino 12 egun lehenago.</p>	<p>Se pregunta también si se va a realizar alguna evaluación con las asociaciones usuarias sobre el nuevo sistema, ya que hay quejas sobre el formato, además del hecho de que cada institución tenga su propia plataforma diferente para presentar las solicitudes. Hay quejas también respecto a que aún haya errores en la plataforma municipal y se estén convocando sesiones formativas 12 días antes de la finalización del plazo.</p>
<p>6.- GIHei buruzko Koordinakundearen lan talde berriaren aurkezpena</p> <p>Koordinakundean Garapen Sostengarriko Helburuak lantzeko taldea eratu da. Norbait gehiagok parte hartu nahi badu, badu aukera.</p>	<p>6.- Presentación del nuevo grupo de la Coordinadora sobre ODS</p> <p>Desde la Coordinadora acaba de constituirse un grupo para trabajar los ODS, por si alguien más quisiera participar.</p>
<p>7.- Galderak eta eskaerak.</p> <p>Udalaren web orrian akats bat dago. Izan ere, finkatutako aurrekontua jasotzen duen laukia ez dago. Akatsa zuzentzeko eskatu da.</p> <p>Kontseiluaren aurrekontu-taldea maiatzean edo ekainean biltzeko eskatu dute, 2018ko aurrekontua aztertu eta 2019rako proposamenak egiteko. Doodle bat bidaliko dute, hitzordua jartzeko, eta Kontseiluko kide guztiei email bat bidaliko zaie, lantalde horretan parte hartzera animatzearen.</p>	<p>7.- Ruegos y preguntas</p> <p>Hay un error en la web del Ayuntamiento, ya que el cuadro de presupuesto consolidado no está. Se pide que se corrija.</p> <p>Se pide que el grupo de presupuestos del Consejo se reúna en mayo o junio o, para analizar el presupuesto de 2018 y hacer propuestas de cara a 2019. Se enviará un doodle para quedar, y se enviará un e-mail a todas las integrantes del Consejo para animar a que más gente forme parte de este grupo de trabajo.</p>
<p>8.- Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaur, prestakuntza, 18:30ean, Udalbatza Aretoan, diru-laguntzei buruzko webeko formularioaren gainekoa. • "Oreka ahula" bideo-foruma, gaur, 19:00etan, Intermón Oxfamekin elkarlanean, Okendo kultur etxean. 	<p>8.- Información sobre próximas actividades.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Formación hoy a las 18:30h en el mismo salón de plenos sobre el formulario web de subvenciones. • Video-ferum "Frágil Equilibrio" hoy también a las 19:00, en colaboración con Intermón Oxfam y en CC OKendo.
<p>Beste aztergairik ez dela, 17:20an amaitu dute bilkura.</p>	<p>No habiendo más temas que tratar, finaliza la sesión a las 17:20h.</p>



▶ Lankidetzta
Cooperación